



ZER DA Euskaraldia?

Euskaraldia hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko ekimena da, Euskal Herri osoan eramango dena aurrera.

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean, hizkuntza-ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzeko ariketa egingo dugu ekimenean parte hartzen dugunok.

Jaurlaritzak eta Topaguneak martxan jarri duten nazio mailako egitasmoa da. Bergaran, Udala eta Jardun dira egitasmoaren bultzatzaile nagusiak eta **Ipintza institutua** herriko entitate sustatzaileetako bat da.

Egitasmoan parte hartzeko **“ahobizi”** edo **“belarriprest”** gisa eman beharko da izena. Parte hartzeak ariketa egitea esan nahi du, praktikatzea, ez euskararen alde gaudela edo euskaraz jakin / ulertzen dugula adieraztea.

16 urte izan beharko dira egitasmoan parte hartzeko. Parte hartzeko izen-ematea zabalduko da irailetik aurrera eta identifikaziorako txapa baliatuko dute guztiek ekimenak dirauen bitartean.



“Ahobizi” denak euskaraz egingo die belarriprest direnei eta euskara ulertzeko gai diren guztiei, horiek erdaraz erantzun arren. Era berean, ezezagunei lehen hitza euskaraz egingo die.

Identifikatzeko txapa izango du.

Ahobizi izateko, euskaraz hitz egiteko gaitasuna behar da.



“Belarriprest” denak, dakienari berarekin euskaraz aritzeko gonbitea egingo dio, berak euskaraz zein erdaraz erantzun arren.

Identifikaziorako txapa izango du, ahobiziek belarriprest dela jakin dezaten.

Belarriprest izateko, euskara ulertu behar da ezinbestean.

Ipintza institutuak bat egin du EUSKARALDIArekin eta zuri ere ekimenean parte hartzeko eskatu nahi dizugu.